

PAKEA ETA PUZKERRAK

A spaldi egin zuen gizakiak berekoikeriaren aldeko eta naturaren aurkako apustua, bai eta gogor asko apustu egin ere! Erronka inoiz baino gogorrago jokutzen ari da azken aldi honetan, naturaren aurka agindako astakeriak ikusi besterik ez (Jaizkibel edo gure kaiko ura ondo daudela uste duenak lasai eska dezake inutilidadea).

Hala ere, betidanik izan da natura bizitu beharra sentitu duena, naturari eskerak bizi izan direnak. Askok gara oraindik Jaizkibelgo itsas bazter eta tontorretan barrena ibiltzen garenak.

Baina badirudi ihesbide hau ere moztu nahi digutela. Orain artean mendia zakarrontzi bat dela uste duten hiritar presituak, tiroz gure belarriak eta piztien haragiak urratu dituzten ehiztariak, natura

babestu asmoz etengabeko tiro sioak egiten dituzten gure zaindariak eta abar luze bat izan dugu gure pasiotxoetan bidai-lagun.

Azken aldi honetan, hala ere, parasito mota berri bat sumatu dugu, Jaizkibel moto laisterketa pista bat dela uste dutenak. Hortxe ditugu egunero (eta asteburuan zer esanik ez), eta hauengandik ezin da ihes egin, motorren orroa nirea ez bezala oilagorrek ere entzuten dute.

Inguruko guztiak eta ez hain ingurukoak nerbioetatik jota utzi eta etxera itzultzen dira, arratsalde ederra pasa dute haize garbia hartuaz (Beren puzkarrena, noski, zerena uste zenuten bada?)

IMANOL ESNAOLA

OHARRA:

Eritzi artikuloetan argitaratu behar duen idazlan orok idazlearen izen abizenak eta N.A.N. zenbakia igorri beharko dizkigu.

Todo aquel que quiera ver publicado su artículo de opinión deberá facilitarnos nombre y apellidos junto con el número del D.N.I.